

Instituzioei begirako agenda internazionalista

2016ko EAEko hauteskundeak

Gizateriak herrion arteko bizikidetzarako printzipio etiko eta politikoak eraiki dituenetik, elkartasuna oinarrizko printzipio da. Internazionalismoa, injustiziak eragiten dituzten arrazoi estrukturalen aurka borrokan dihardugun herrion arteko elkartasuna da. Hain zuzen ere pairatzen dugun kapitalismo mundial honetan egunez egun biderkatzen doazen injustizien aurka. Elkartasun horretan noski, injerentziarik ezaren oinarrizko printzipioa beti errespetatuz.

Urte luzeetan zehar Euskal Herriak balore internazionalista horiek praktikan jarri ditu, dela Euskal Herria internazionalista baten beharrezana aldarrikatuz edo eta herri burujabeen arteko harremanetan oinarrituko den mundu berri baten alde eginaz. Bide horretan, herri eragile eta mugimendu sozialetatik mundu luze eta zabaleko burujabetza prozesu ezberdinen alde egindako elkartasun kanpaina eta inizatibak aurki ditzakegu, edo eta potentzia inperialista handiek eskubide indibidual zein kolektiboen urraketak salatzeke ekintzak. Guztiak, gure herriaren kultura politikoaren zati dira dagoeneko. Urte luzeetako lan honek, herrion artean errespetu eta elkartasunezko harremanak eraikitzeke aukera eskaini digu, eta errealitate ezberdinak izanda ere, mundu juxtu eta parekide batean bizitzeko irrikak hurbildu gaitu.

Dokumentu hau sinatzen dugun antolakunde eta kolektibok, aurrez aipatutako eremu horretan euskal instituzioetatik ezer gutxi egin dela iritzi dugu. Maiz, modu aktibo edo pasibo batean, nazioartean nagusi diren menpeko harreman desorekatuak elikatu izan dira. Beste batzuetan mugimendu sozialetatik burutzen dugun lana gutxietxi edo oztopatu izan da. Euskal Herrian burututako elkartasuna internazionalista adierazpen nagusienak jendarte zibil antolatuaren eskutik etorri direla esan genezake, eta ez dira dagokien instituzioetatik babestuak, aintzat hartuak, eta are gutxiago sustatuak izan.

Hori dela eta, hurrengo Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunde autonomikoen testuinguruan, alderdi politiko ezberdinei, eremu instituzionaletik egin beharreko jarduera internazionalistarako gure exigentziak jasotzen dituen konpromiso minimoen agenda hau helarazi nahi diegu. Geroraezina deritzogu euskal instituzioetatik ondoren jasotako exigentzien gaineko konpromiso minimo batzuk hartu eta dagokion politika instituzionala martxan jartzea.

1.- Herrien autodeterminazio eskubidea

Autodeterminazio eskubidearen errespetua oinarrizko printzipioa da munduko herri guztien arteko elkartasunezko harremanetan. Herri batek libreki egituratzeko duen ahalmena adierazten du, bere gobernu eta munduko gainontzeko herriekin harremanetzeko eredia erabakitzeko ahalmena, eta kanpo injerentziarik gabe eta berdintasunaren printzipioa dituen oinarri. Hala dago

jasota hain zuzen zuzenbide internazionallean eta Nazioarteko Giza Eskubideen Paktuan.

Herri askori ordea, Estatu autoritarioek, libreki beraien etorkizuna erabakitzeko eskubide kolektiboa mugatu, debekatu eta erreprimitu izan diete, maiz gainera, estatuz gaindiko instituzioen baimenarekin, Europar Batasuna eta nazioareko komunitatea esaterako.

Zentzu honetan gaur egun bidegabekeria historikoak bizi bizirik diraute, herri saharuiaren egoera izugarria adibidez. Autodeterminazio eskubidearen alde borrokan ari den herria da, Nazio Batuek aitortutako eskubide hain zuzen ere, eta Marokoko estatuaren aldetik bortizki erreprimitua.

Horra hor Palestinar herriaren egoera, ilegalki okupatuak izan ziren beraien lurak eta egunez egun Israelgo Estatuaren apartheid genozida pairatzen du bertako herriak, mendebaldeko Estatu eta instituzioen konplizitatearekin.

Edo eta herri kurduaren tinkotasun eta esperantza ere, Estatu Turko kriminalaren aurrean, bere eskubide kolektiboen alde borrokan ari den munduko estaturik gabeko naziorik handiena. Isilarazia den gerra batean, ISISen hedapen mehatxuri modu eroiko batean aurre eginez suntsitua izaten ari den herria.

Azkenik, Europaren bihotzean eta guregandik hurbilago Eskozia eta Herrialde Katalanak ditugu. Ezberdinak izanik ere beraien etorkizuna modu libre batean erabaki nahi duten nazioak dira hauek ere, maiz eskubide demokratiko hau aitortua ez bazaie ere.

Bere burua internazionalista eta solidariotzat duen politika legegile eta dinamika parlamentario batek ezin du beste aldera begiratu herri hauek zapalduak direnean beraien oinarrizko eskubide demokratiko eta kolektiboak errespetatzen ez dituzten Estaturen aldetik. Alderantziz, herri guztien berezko autodeterminazio eskubidearen defentsa egitea dagokio.

Horregatik, ondorengoak exigitzen dugu:

- Palestinarekiko elkartasuna adieraztea BDZ kanpainarekin bat eginez eta Eusko Jaurlaritzak Israelgo Estatuarekin duen lehentasunezko akordioarekin amaitzea.
- Babes legal eta ekonomikoa ematea BDZ kanpainarekin bat egin izanagatik salatuak izan diren udal eta instituzio lokalei.
- Marokoko erreinuarekin dituen harreman instituzional, politiko, ekonomiko eta diplomatikoei amaiera ematea, herri saharuiarraren autodeterminazio eskubidea aitortu arte.
- Turkian AKPren Gobernuak herri kurdu eta bere indar politiko demokratikoen (HDP) kontra egiten ari den politika genozidaren salaketa, eta aldi berean Kurdistanen administrazio turkoaren baitan aurkitzen diren instituzio kurdu demokratikoei aitortza eta babes aktiboa

adieraztea.

- Babesa eta aitortza instituzionala ematea Rojabako instituzio demokratikoei. Izan ere Konfederalismo Demokratikoaren¹ paradigmaren babespean autogobernu sistema demokratiko bat eraiki baitute.
- Beraien herria zatikatzen duten Estatuengadik mendeetan zehar menpekotasun kolonialista pairatzen duen Herri kurduarekiko elkartasuna adieraztea.
- Herrialde Katalanaren autodeterminazio eskubidearen defentsa egitea, eta zehazki, Kataluinak, Herrialde Katalanetako zati bezala, Errepublikak independente batean egituratzeko abiatutako prozesu demokratikoari babespea adieraztea. Honekin batera Espainiar Estatuak prozesu honen aurka burutu ditzakeen erasoak arbuizatea.

2.- Latinoamerikako eta jatorrizko herrien prozesu eraldatzaileak

Azken hamarkadan aldaketa oso garrantzitsuak bizi izan dira herri latinoamerikarren integrazio, burujabetza eta independentziarako.

Politika neoliberalen aurrean burujabetza prozesu emantzipatzaile eta burujabetza eraikuntzarik handiena bizi eta gopuztu du azken mendean Latinoamerikak. Herri botere eta aurrerakoien gorakada bat eragin du hainbat herrialdetan; jendarte zibilaren indartze bat; aberastasunaren banaketa berri bat, ezberdintasunak eta kontzentrazioa txikitu dituen desberdintasun eta injustizia gehien bizi dituen kontinentean; Latinoamerika eta Karibearen batasun eta integrazio prozesu bat (ALBA, UNASUR edo CELAC) milaka aldiz isildutako kontinente bati, ahotsa eta garrantzia internazionala eman diona.

Honen aurrean, bai kontinenteko oligarkia neoliberalen eta, Ameriketako Estatu Batuak eta Europar Batasunaren gidaritzapean, baita kanpo indarren aldetik, esku hartzea hazten ari da. Latinoameriketako eraldaketa prozesuak atzera bota nahi dituzte "Estatu kolpe leun" bezala ezagutzen ditugun kolpe, gerra ekonomiko edo eta manipulazio mediatikoaren bitartez (berriki Brasil bezala).

Bestalde, jatorrizko herrien borroka azpimarratu beharra dugu, estuktura kolonial guztia (politika, ideologia, kultura) hankaz gora jartzeko izan duten ahalmenarengatik, egun oraindik indarrean dena. "Bizitza ona", dagozkien eskubideen aitortza, lurraldetasuna, historia, identitatea, kultura eta erabakitzeko naiz burujabetzaren aldeko beraien borrokak aurre egiten dio gobernu eta enpresen eskutik datozen erasoari, baliabide naturalen erauzketan oinarritzen den eredu neoliberal bati, sekulako eragin kaltegarriak dituen okuaptutako lurraldeetan.

1 Ikusi "Konfederalismo demokratikoaren eranskina"

Beraz, ondorengoa exigitzen dugu:

- Kanpo injerentzia eta egungo gobernuak desetanbilizatzeko ahalegin golpistak arbuiatzea.
- Kolonbiako bake prozesuari babes instituzionala adeiraztea.
- Babes instituzionala adieraztea Venezuelako Prozesu Bolibarrari eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioetatatik golpe saiakerekin lotutako Venezuelako oposizioari eskaintzen zaion babesa gaitzestea.
- Babes instituzionala ematea Cubako iraultzari, Ameriketako Estatu Batuek mantentzen duen blokeo ekonomiko, finantziario eta komertzialaren behin betiko amaitu dadin. Gaur egun oraindik ere indarrean den Europar Batasuneko "*Posición Común hacia Cuba*" bezala ezaguna den akordioaren behin betiko amaiera.
- Lurralde burujabetzaren errespetua eta Guantanamoko lur okupatuen itzultzea.
- Jatorrizko herriak hornitzeko eraikitako instituzioen aitortza ofiziala egitea.
- Autonomia zapatistaren² eta bere gobernu autonomoetako instantzia ezberdinei aitortza instituzionala ematea, eta Txiapaseko emakumen indigenen askapen prozesuari babesa adieraztea.
- Eraso militar eta paramilitarrek komunitate zapatistetan burutzen dituzten erasoen gaineko kondena posizionamendu argia edukitzea, eta Txiapaseko Estatuaren okupazio militarren salaketa egitea.

3.- Esku-sartze inperialistak eta errefuxiatuak

Kapitalismoak mundu mailan menperatzeko hartzen duen forma da inperialismoa. Aitzitik, edonola irabaziak eskuratzeko proiektu global eta biolento bezala planteatzen da kapitalismoa, klase eta genero arteko barne dominaziozko harremanak Estatu inperialista eta menpeko herrialdeen arteko kanpo dominazioa uztartuz.

Horrela, herrialde hauek potentzia zapaltzaileen beharren arabera mundu mailako egitura ekonomikoan txertaturik daude, hau da, sistema kapitalistaren erreproduzioan paper garrantzitsu bat izatera beharturik daude (baliabide naturalen erreserba, lan esku merkeagoa...). Menpekotasunezko kokaleku honek aberastasun kopuru ikaragarrien lapurreta eta transeferentzia,

² Autonomia Zapatistak EZLN eta gobernu mexikarrak 1996 San Andresen sinaturiko akordioan du oinarri juridikoa. 3 mailatako autogobernuaz osatzen da: lokala (komunitateak), municipala (Municipios Autónomos Rebeldes Zapatistas – MAREZ) eta bailarakoa (Juntas de Buen Gobierno – JBG). Sistema honen bidez gizarte zibil zapatista autogobernatzen da

metropoliarekin menpeko harreman produktibo, komertzial, finatziario eta kulturalen ezartzea eragiten duten, erabateko burujabetza eza alegia.

Egoera beraien interesen arabera garatzen ez bada, egitura inperialistaren eragile nagusiek, Estatuak, transnacionalesk eta nazioarteko erakundeak, beraien esku dauden bitarteko guztiak (politiko, ekonomiko eta militarrek) mobilizatzen dituzte haien helburuak lortzeko, nazioarteko legeei muzin eginez.

Zentzu honetan, gaur egun mendebaldeko estrategia militarra garatzeko beharrezko tresna bilakatu da OTAN erakunde politiko-militarra. Yugoslavia oiaren bonbaketetatik, Irak, Afganistan eta Libiako sarraskira, balaira hortako baliabideen arpilatzearekin batera, azken harmakadetan OTANen blindatze politiko-militarrak zihurtatzen du bloke kapitalista inperialistaren hegemonia mundiala zalatzen jartzea ekiditea

Gaur egun bizi dugun errefuxiatu uholdearen arrazoia mendebaldeko potentziek Ekialde Hurbilean esku-sartze militar jarraiek sortzen dituzten kaosa, miseria eta suntsiketaren ondorioak besterik ez dira.

Horrexegatik, ondorengoak exigitzen dugu:

- 1986ko erreferendumean euskaldunek OTANi emandako ezetzea instituzionalki onartzea.
- OTANen esku-sartzeak arbuiatzea.
- Geure lurraldean OTANen indarren presentzia arbuiatzea eta nafarroak instituziak babestea Bardeetako tiro poligonoaren itxieran.
- Armagintzako eta beraien aktibitatea garatzen duten herrieta gizarte zein naturarekiko triskantzak eragin dituzten euskal enpresa transnazionalak fiskalizatu eta diru-laguntzarik ez ematea.
- Gaur egun Ekialde Hurbilian europar esku-sartze militarrek eta EB eta Turkiaren arteko ituna arbuiatu.
- Babes instituzional eta materiala eta babes politika ez murriztaile, esku-zabal eta elkartasunezkoa Euskal Herrian daude errefuxiatuei.

4.- Komunikabideak eta gardentasun instituzionala

Internazionalismoa elkartasunaren euskal kulturaren parte izan arren, ez albistegi publiko eta masiboetan ezta Euskal Herriko instituzioetan ere berau neurri berdinean isladatua ikusten.

Harreman formal eta interes enpresarial zein instituzionalak agertzeko joera izan da Herrien arteko elkartasun keinuak beharrean.

Gehien kontsumitzen diren kanalek komunitate, herri, prozesu edo egoerei buruzko informazioa alternatiboa edo erradikala direla diote, modu peioratiboan, eta askotan ez dira herri edo pertsonen eskubideen urraketen adierazpen zein eskaera besterik, euskaldunok kontsumitzen ditugun komunikabideetan ia isladarik ez dutenak.

Aniztasuna, ikuspegi ezberdinak zein komunikabideen independetzia adierazteko beharra jakinarazi nahi dugu, errealitate eta garatzen ari diren aldaketa prozesuekiko manipulaziotik urrunduz, askotan hauetan esku-sartzeko intereskin.

Modu berean, bisita, bilera, eremu eta Euskal Herria bisitatzeko duten eragile, gobernu edo instituzioekin burutuko akordioei buruzko gardentasun falta eta informazioa lortzeko zailtasunak egiaztatzen ditugu behin eta berriro, gai internazionalak edo elkartasunezkoak direnenean geure parte hartzea aintzakotzat jotzen dugularik.

Beraz, ondorengoak exigitzen dugu:

- Komunikabide publikoetan informazioaren trataera objetibo eta egiaztatua.
- Elkartasun internazionalista lantzen duten eragileen presentzia eta ikusgaitasuna sustatzea komunikabide publikoetan.
- Atzerriko instituzioekin buruturiko harreman instituzionalak publiko eta erraz eskuratu ahal izateko mekanismoak ipintzea.
- Izaera internazionalerako gaiak lantzen diren komizioetan elkartasun internazionalista lantzen duten eragileen parte-hartzea bultzatzea.

Sinatzaileak:

AldarriCATuz, Amig@s de la RASD, Askapena, Biladi, Bizilur, Círculo Bolivariano, Euskadi Cuba, Lumatik, Mundubat, Newroz Euskal Kurdu Elkarte, Paz con Dignidad y TxiapasEKIN Plataforma Vasca de Solidaridad con Chiapas

Euskal Herria, 2016ko iraila